

Komando baten analisisia

LUKAS DORRONSORO

(Ataun, 1931)

Lanbidez maisua, idazlea eta itzultzaile oparoa, antzerki-lan ugari itzuli eta argitaratu ditu euskaraz: *Udaberria gau bartan* (J. Poncela), *Arresi latza* (Calvo Sotelo), *Zauri argitsua* (J.M. Segarra), *Zazpi deadar itsasoan* (A. Casona); *Kristal lizentzia-tua*, *Ijito nexka* eta *Rinkonete eta Kortadillo* (M. Cervantes). Antzezle amateur bezala ere lana egin izan zuen. *Margo Ederdun Entziklopeadiako* lankide ere izan da. Antologia honetarako itzulita baina oraindik argitaratu gabe daukan Alfonso Sastreren antzerki obra baten lehen zatiko bi koadro aukeratu ditugu.

Análisis de un comando*

ALFONSO SASTRE

Cuadro VI: Comando loco

Tania, desnuda, está haciendo gimnasia ante el Policía que la observa risueño, sentado en una butaca. A éste algo le estorba en el sobaco izquierdo y se despoja de la sobaquera. Deja la pistola enfundada sobre una mesita.

POLICÍA.—¿Te cansas?

TANIA.—Sí.

POLICÍA.—Date la vuelta. (*Tania lo hace.*) Haz algunas flexiones; no sea que pase alguno de éstos y te vea descansar y vaya a arriba con el cuento. Hay mucho hijo de puta por aquí suelto, qué te voy a decir que tú no sepas. (*Flexiones. Pausa.*) Bueno, déjalo ya. Descansa... (*Tania va a sentarse.*) No, de pie; y acércate, acércate, que tengo algo que decirte. (*Baja mucho la voz.*) Es un recado para ti. Bueno, para vosotros, para los militantes. Es... un comunicado de circulación interior. Así lo dice aquí, ¿ves? «Espartaco, comunicado a los militantes. Circulación interior». (*Tania, a su pesar, hace un gesto de sorpresa.*) Espartaco... ¿Reconoces la letra, el sello? ¿Ninguna duda? (*Ríe.*) No hay ningún misterio. Se han ocupado varios ejemplares durante un registro. Hay caídas, como vosotros decís, caídas en tromba; son... unos cincuenta, por lo que parece. Un rudo golpe para la banda, ¿no? Cincuenta detenidos, un arsenal de armas y explosivos, en fin, la intemerrata, hija. ¿Cómo decirte? Si quieres te leo el papelín; me he sacado una fotocopia para mi archivo particular sin que éstos se den cuenta. ¿Allá va? (*Tania asiente con un gesto casi imperceptible.*) Allá va. (*Lee.*) «El Comité Ejecutivo de... organización al servicio de la revolución proletaria... a propósito del atentado de San Francisco el Grande, declara la no participación de esta organización en dicho atentado, el cual es

Komando baten analisisia

LUKAS DORRONSORO

VI koadroa: Komando eroa

Tania, larru gorri, soinketan ari da poliziaren aurrean, hau, butaka batean eserita irribarrez, begira dagokiola. Honi enbarazu egiten dio zerbaitek ezkerreko galtzarbean eta, galtzarbekoa erantzten du. Mahaitxoaren gainean uzten du pistola bere zorroan.

POLIZIA.—Nekatu egin al zara?

TANIA.—Bai.

POLIZIA.—Jira zaitez. (*Taniak bala egiten du.*) Egin itzazu makurketa batzuk; ea, bestela, horietakoren bat, hemendik pasatzerakoan atsedean hartzen zaudela ikusi eta, kontuarekin gora joaten zaigun. Puta-kume asko dabil inguru honetan libre; zer esango dizut zuk ez dakizunik? (*Makurketak. Geraldia.*) Beno, aski duzu. Har ezazu atsedean... (*Tania esertzera doa.*) Ez, zutik; eta zatoz hona zerbaitekin dizut esateko eta. (*Oso abots isilean.*) Errekadu bat dut zuretzat. Beno, zuentzat, ekintzaileontzat. Komunikatu bat da..., barrukoentzat soilik. Hala dio hemen, ikusten? “Espartako, ekintzaileentzat adierazpena. Barrutian bakarrik erabiltzekoa.” (*Taniak, nabi gabe, harridurazko keinu bat dago.*) Espartakok... Ezagutzen al dituzu letra eta zigitua? Zalantzarik? (*Parrez*) Ez dago inolako misteriorik. Erregistro batean ale batzuk harrapatu ditugu. Erorialdiak ari dira gertatzen, zuek esaten duzuen bezala, erorialdiak piloka. Berrogeitamar bat edo... badira, dirudienez. Kolpe gogorra zuen banda horrentzat, ez? Berrogeitamar bahituak, arma eta lehergailu mordoa, eta, benetan ikaragarria, alaba. Nola esango nizuke? Nahi baduzu, irakurri egingo dizut papertxoak; neure artxiborako fotokopia bat atera diot, beste horien ezkutuan. Hor doa? (*Taniak baietz, keinu ilaun batez.*) Badoa. (*Irakurtzen.*) “Proletari iraultzaren zerbitzuko erakundearen... Komite Exekutiboak... San Francisco el Grandeko atentatua dela eta, zera aitortzen du: erakunde honek ez duela atentatu horretan parte hartzerik izan; hori

probablemente la acción irresponsable de un *comando loco* vinculado en otro tiempo a nuestra organización y separado de ella desde hace aproximadamente un año. Nuestra línea de lucha excluye la comisión de actos irreflexivos y sangrientos. Siendo la ejecución de Kaga Ulibarri un objetivo político correcto, los métodos empleados por el llamado *Comando Elías* han sido aventureristas e irresponsables». ¿Qué te parece? Está firmado por el Comité Ejecutivo, aunque, según otro papel que anda por ahí, este Comité ha sido expulsado en una asamblea de la base o no sé qué. De modo que hay escisión o, más bien, que entre esto y las detenciones Espartaco se va a la mierda, todo pringado de sangre y porquería. ¿Qué opinas de la situación? Anda, hazme flexiones gimnásticas como tú sabes, o baila un poco para que éstos vean que no estamos aquí tumbados a la bartola. Y luego te vistes y te prometo que nadie te molestará hasta mañana. ¿Vale? (*Tania parece un espectro cuando asiente con un gesto.*) Espera que te ponga la radio. Así te distraes un poco. Yo no puedo hacer más. (*Pone la radio. Suena una música. Tania está llorando silenciosamente.*) Vamos, mujer, haz algo. No te vas a morir por eso. (*Tania se pone a bailar. El policía baja el volumen de la radio.*) Sigue, sigue, que te voy a informar de algunas cosas y es mejor no llamar la atención. Verás, verás... Es para tu uso personal. Como lo comentas con alguien te la cargas. ¿Sabes que tu amigo Carlos murió en el acto de la detención? Pues ya lo sabes: trató de resistirse y... lo que pasa. También hay que esos chicos, ¿cómo se llaman?, la Andrea y el Ulrico se han suicidado en sus celdas. Ella se tiró por una ventana y el Ulrico de un tiro en la boca, nada menos, el pobre hombre. Parece que se desesperó por una cosa que tú no sabes: un comando de italianos secuestró un avión de Iberia y pidieron vuestra libertad y, bueno, han muerto todos. Otra cosa es que ese pobre hombre que llamáis el camarada Elías sigue con su huelga de hambre como protesta por vuestras detenciones. Anoche he podido verlo y es una pena, está como esqueleto, todo consumido, una pavesita el pobre hombre. ¡Qué quieres que te diga! Es una pena todo, como ves. Bueno, déjalo, déjalo ya. (*Apaga la radio. Tania se detiene.*) Chica, hay veces que uno no sabe ni cómo comportarse ni qué hacer ni nada de nada; chica, te lo digo de verdad. Cosas así, entre nosotros, entre españoles, es algo que a mí se me escapa, de verdad. Será que tengo una cabeza así, cuadrada, yo no sé. Pero para mí, a ver si me entiendes, España es España y tendríamos que estar orgullosos todos de ser españoles, ¿no?, por encima de las clases y de todas esas mierdas: Españoles, que es una cosa grande en todo el mundo. Pero vosotros... Y claro, me cago en Dios, ¡cómo vais a acabar! ¡Así!

komando eroren baten burugabeko ekintza izan bide da. Delako komando hori gure erakundeari lotua ibili zen garai batean, baina, bada urtebete guregandik aldegin zuela. Gure borroka-bidetik at daude ekintza burugabeak eta odoltsuak. Kaga Ulibarri exekututzea helburu politiko zuzena izan arren, *Elias Komandoak* erabili dituen metodoak abenturazkoak eta ganora gabeak izan dira.” Zer iruditzen zaizu? Komite Exekutiboak izenpetua dator, hor zehar dabilen beste paper batek Komite hau, asanblada orokor batean edo, kanpora bota dutela badio ere. Beraz, zatiketa duzue edo, hobeto esan, hau eta bahiketak direla medio, Espartako simaurtegiara bidean doala, dena odolez eta zikinkeriaz ase. Zer iruditzen zaizu egoera? Ea, egizkidazu makurketa batzuk zuk dakizun bezala, edo, dantzalditxo bat, horiek ikus dezaten ez gaudela hemen alferkerian etzanda. Eta gero jantzi zaitez eta, nik agintzen dizut, ez du zurekin inork eginkizunik izango bihar arte. Ongi? (*Taniak iratxoa ematen du, imintziaz baietz adieraztean.*) Itxaron, irratia ipiniko dizut. Horrela entretenitu egingo zera apur bat bederen. Nik ezin dizut besterik egin. (*Irratia pizten du. Musika doinu bat entzuten da. Tania negar isilean basi da.*) Tira, emakumea, egizu zerbait. Ez zara horrengatik hilko. (*Tania dantzan hasten da. Poliziak irratia bota moteltzen du.*) Jarrai, jarrai, gauza batzuen berri eman behar baitizut eta hobe dugu nabarmen ez agertzea. Ikusiko duzu, ikusiko... Zuretzako bakarrik da. Inori esaten badiozu, ederra daukazu. Ba al dakizu zure lagun Karlos hil egin zela, bahitzerako unean bertan? Ba, badakizu: gogor egiten hasi zen eta... horixe gertatzen da. Hor dago beste bi gazte horiena ere, nola dute izena? Bai, Andrea eta Ulriko; beren burua hil dute, bakoitzak bere zeldan. Neskak leihotik behera bota zuen bere burua; Ulrikok, berriz, tiro bat sartu zuen ahoan, horixe egin zuen gizagajoak. Desesperatu egin zela dirudi zuk ez dakizun zerbaitengatik: italiar komando batek Iberiaren hegazkin bat bahitu zuen eta zuentzat askatasuna eskatu zuen eta, beno ba, denak hil dira. Beste gauza bat zera da, zuek Elias laguna deitzen duzuen gizagajo horrek gose greban jarraitzen duela, zuen bahikuntzengatik protestan. Bart ikusi ahal izan nuen eta, lastimagarria dago, eskeleto bat dirudi, dena xahutua, erabat geldo gizagajoa. Zer nahi duzu esatea? Penagarria da guztia, ikusten duzunez. Beno, utz ezazu, utzi. (*Irratia itzaltzen du. Tania gelditu egiten da.*) Neska, zenbait unetan batek ez daki ez nola jokatu, ez zer esan, ez ezer; benetan esaten dizut, neska. Horrelako gauzak gure artean, espainiarren artean, horrelakorik ez zait buruan kabitzen, benetan. Dudan bezalako burua dudalako izango da, karratua, nik ez dakit. Baina, niretzat, ea ulertzen didazun, Espainia Espainia da eta harro egon behar genuke guztiok espainiar garelako, ez?, klaseen eta beste kakakeria horien guztien gainetik: espainiarrak, hori gauza handia baita mundu guztian. Zuek, ordea,... Eta, jakina, kaka Jainkoarentzat, hara nola bukatu behar duzuen! Honela!

(Ella no lo mira. Él echa un vistazo a la pistola pero no la coge. Se va. Cierra con gran estruendo la puerta metálica de la celda. En un silencio blanco, metafísico, Tania parece volver en sí. Se estremece. Siente frío y entonces se enfunda en un viejo camisón blanco que hay en el suelo. De pronto se queda como fascinada: ha visto la pistola. Se cerciora, mirando a su alrededor, de que no hay nadie con ella. Se sienta pensativa ante el arma y, al poco, se saca algo de debajo de la lengua; es una especie de carboncillo. Con él escribe sobre la gran pared blanca del fondo las siguientes palabras:

HAN MATADO A MIS COMPAÑEROS Y
VAN A MATARME A MI ¡SOCORRO!
Alguien diga en la calle
que ha leído esto.

TANIA

Después desgarrar un bajo de su camisón y con esa tela envuelve la culata de la pistola y así la saca de su funda. En primer término, frente al público, gira la cabeza hacia su izquierda y se aplica el cañón de la pistola en la nuca. Dispara y se desploma. Ahora vemos al policía, que está hablando por teléfono.)

POLICÍA.—Hoy no voy a cenar, mamá; no, nada, estoy muy bien. ¿Cansado? No, qué va... Pero hay mucho trabajo y qué le vas a hacer... ¿Y tú cómo estás? ¿Hoy no te duele la cabeza? No te tomes más de una aspirina... Tienes que tener cuidado con el estómago. No, no tardaré. Buenas noches, mamá.

(Oscuro sobre la figura del policía, y, más lento, sobre el cadáver de Tania, que parece dormida y cuyo rostro tiene, por primera vez desde que la conocemos, una expresión de paz.)

Cuadro VII: Fin de la cuestión o solución final

Locutor de la TV (a ser posible con imagen:) «En la mañana de hoy han fallecido en la Prisión Especial Antiterrorista de Molina de Aragón la conocida como «Tania la Roja» y unas horas después, de resultas de su prolongada huelga de hambre, el llamado «Elías», o sea, Teodoro Salvador Elías, el cual se había negado a que le fuera administrado suero y a cualquier cuidado por parte de los facultativos de la Prisión»

Ahora son dos policías los que están hablando mientras otros, de uniforme y armados con metralletas, se apostan, medio ocultos, en diferentes lugares del teatro.

POLICÍA 1.—¿Está todo dispuesto?

POLICÍA 2.—Sí.

(Neskatxak ez dio begiratzen. Poliziak pistolari begiraturtxo bat botatzen dio; ez du, ordea, hartzen. Badoa. Zarata handiz ixten du metalezko gela-atea. Isiltasun zuri, metafisiko, batean, Taniak bere buruaren jabe egin dela ematen du. Larritu egiten da. Hotza nabaritzen du, eta, orduan, lurrean zegoen kamisoi zuri zabar batean biltzen du bere soina. Bat-batean, liluratua bezala geratzen da: pistola ikusten du. Ingurumarira begiratu eta ziur da berarekin ez dagoela beste inor. Armaren aurrean esertzen da pentsakizunak hausnartzen, eta, handik laster, mibipetik zerbait ateratzen du; ikaztxo baten antzeko zerbait da. Harekin, fondoko pareta zuri handian, zera idazten du:

NIRE LAGUNAK HIL EGIN DITUZTE
ETA NI ERE HILTZERA DOAZ.

HEL!

Norbaitek esan dezala kalean,
hau irakurri duela.

TANIAK

Gero, bere kamisoiari, azpi aldetik, zati bat zarratadatzen dio eta oibal zati horretan biltzen du pistolaren kulata, horrela bere zorrotik ateratzeko. Lehen planoan, ikusleei begira, burua ezker aldera jiratzen du eta garondoan ipintzen du pistolaren kanoia. Zapaltzen dio katua eta, zapla!, erortzen da. Orain polizia ikusten dugu, telefonoz bizketan ari dela.)

POLIZIA.—Gaur ez noakizu afaltzera, amatxo; ezer ez, oso ondo. Nekatua? Ez, bai zera... Baina, lan asko dago eta, zer egingo dugu... Eta zu nola zaude? Gaur ez al daukazu buruko minik? Ez hartu aspirina bat baino gehiago. Ez, ez naiz berandu joango. Gauon, amatxo.

(Poliziarri iluna, eta, astiroago, Taniaren hilotzari era bai; honek lotan dagoela dirudi eta bere aurpegiak bake itxura hartu du, ezagutu genuenetik lehenbiziko aldiz.)

VII koadroa: Arazoaren bukaera edo azken irtenbidea

Telebistako biztuna (abal balitz, irudi eta guzti): “Gaur goizean, Molina de Aragon-go Presondegi Antiterrorista Berezian, bi lagun hil dira: “Tania la Roja” zeritzana lehenbizi, eta, handik ordu batzuetara, “Elias” zeritzana, Teodoro Salvador Elias, alegia, gose greba luzearen ondorioz, ez baitzuen ez gatzurik ez beste inolako laguntzarik hartu nahi izan presondegiko sendagileengandik”.

Orain, bizketan, bi polizia ari dira, beste batzuk, uniformeaz jantziak eta metrailetaz armatuak, antzokian, han-bemenka, erdi ezkutuka dabiltzan bitartean.

POLIZIA 1.—Dena gertu al dago?

POLIZIA 2.—Bai.

POLICÍA 1.—Vale.

(Pulsa un botón en un cuadro y una puerta metálica empieza a abrirse con un ligero zumbido. Es la de la celda de Sergio, al que hasta ahora no hemos visto más que sollozando en el suelo en una ocasión. Su posición actual puede recordar aquella. Pero ahora se incorpora extrañado, al escuchar el zumbido. Su extrañeza se acentúa al ver que la puerta de la celda se está abriendo. Pero no se mueve. Cuando la puerta está abierta del todo, mira expectante. Hay una pausa durante la cual él no se mueve. Es cuando el policía 2, desde otro punto, habla frente a un micrófono.)

POLICÍA 2.—Sergio Granados... Sergio Granados... Levántese. *(En efecto, vemos la imagen Sergio en una pantalla que, junto a otras, hay frente al policía 2, el cual ahora grita broncamente:)* ¡Vamos! ¿Qué hace? ¡Levántese! ¿Es que no me oye? ¿O prefiere que vayamos a levantarle a palos? *(Sergio se levanta y lo vemos, naturalmente, tanto en su celda como en el monitor.)* Eso está mejor. Ahora dispóngase a recibir instrucciones muy precisas y a ejecutarlas en el acto. ¿Ha comprendido? *(Sergio, como desamparado, hace un gesto de que sí.)* Se trata de lo siguiente: Ha de abandonar su celda corriendo, a toda la velocidad que le sea posible, por el corredor que hay enfrente de su puerta. ¿Entendido? *(El policía 2 consulta al 1 con la mirada. El policía 1 hace un gesto de O.K.)* Así, pues, cuando pronuncie la palabra cero, salga a todo correr de su celda. Tres, dos, uno, ¡cero!

(Sergio no se ha movido. Está aterrorizado. Grita y su alarido se oye, resonante, en los aparatos megafónicos.)

SERGIO.—¡Van a aplicarme la ley de fugas!

POLICÍA 2.—*(Grita.)* ¡Cabrón! ¿Qué te has creído? ¿Que somos unos asesinos como tú? ¡Esto es un ejercicio como otro cualquiera! ¡Al llegar al fondo del pasillo regresas de la misma forma a tu celda! ¿O prefieres ir a la bañera esta noche? ¡Y basta ya de charla, chivato, hijo de puta! Tres, dos, uno, ¡cero!

(Sergio, encogido, como tratando de protegerse con los brazos de las ráfagas que espera, sale corriendo. Salta al pasillo central y corre por él hacia el vestíbulo. Los policías de uniforme, desde sus distintos puntos, disparan sobre Sergio que cae en el pasillo central, acribillado. Se tambalea antes de caer y su cuerpo queda allí tendido. Mientras tanto la escena se ha transformado en un tribunal militar. Paco está en el banquillo con las manos esposadas atrás.)

PACO.—Y, para terminar, me declaro el único responsable del atentado de San Francisco el Grande. Yo soy el autor intelectual y material de esta acción y fue un error mío el que, precisamente, produjo la catástrofe.

POLIZIA 1.—Ongi!

(Koadro batean botoi bat zapaltzen du eta metalezko ate bat basten da irekitzen, burrunbada arin bat ateratzen duela. Sergioren zeldako atea da. Sergio ez du gu ikusi, bebin, lurtean negar zotinka, bestetan. Oraingo bere jarrerak orduko gogoraz lezake. Oraingoan, ordea, jaiki egiten da, ate burrunbadaz barritua. Gebiago barritzen du atea irekitzen doala ikusteak. Ez da mugitzen, ordea. Atea erabat ireki denean, zer ote datorkion zain jartzen da. Une batez, ez da ezer agertzen eta, Sergio geldi dago. Aldi horretan, Polizia 2, beste kokagune batean, mikrofonoz bizketan ari da.).

POLIZIA 2.—Sergio Granados... Sergio Granados... Jaiki zaitez. *(Hain zuzen, Sergioren irudia ikusten du gu pantaila batean, Polizia 2-k bere aurrean dituen pantailatiko batean. Polia 2-k, garrasi zakarrez:)* Tira! Zertan zaude? Jaiki zaitez! Ez al didazu entzun ala? Nahiago ote duzu guk, horra joan eta, makilakadaz jaikiaraztea? *Jaikitzen da Sergio eta, noski, bere zeldan eta monitorean, bietan ikusten du gu.*) Hobe da horrela. Zaude, orain, agindu zehatzak jasotzeko, adi, hartu orduko bete ditzazun. Ulertu al duzu? *(Sergiok baieztako imintzioa dago, inondik laguntzarik eza adieraziz)* Hara zer den: Lasterka alde egin behar duzu zeure zeldatik, ahalik eta zitzu bizienean, zure aturreko ibilbidean zehar. Ulertu al duzu? *(Polizia 2-k 1-i begiratzearan itaun soa igortzen dio. Polizia 1-ek O.K. erantzuten dio imintziaz.)* Beraz, nik zero esaten dudanean, irten zaitez lasterka bizian zeure zeldatik. Hiru, bi, bat, zero!

(Sergiok ez du zirkinik ere egin. Izu-ikaraz dago. Garrasi egiten du eta haren aiuna oibartzuna dariola barreiatzen da, megafonia aparailuen bidez.)

SERGIO.—Ihes legea egoztera doazkit!

POLIZIA 2.—*(Garrasiz.)* Kabroi horrek! Zer uste duk hik? Hire antzeko gizahiltzaileak garela? Beste edozein ariketa bezalakoa duk hau! Ibilbidearen beste muturreraino iristean, itzul hadi, era berean, heure zeldaraino. Ala nahiago duk, gaur gauean, bainera-aldi bat egitea? Eta aski diagu berrikeratik, alu-kume kontakatilu hori! Hiru, bi, bat, zero!

(Sergio, kuzkurtua, espero dituen tiro-zaparradetatik bere burua besoez babesten bezala, lasterka irteten da. Erdiko pasabidera salto egin eta, sarrera-aretorantz doa. Uniformez jantzitako poliziek, handik eta hemendik, tiro egiten diote Sergiori, eta, han erortzen da, erdiko pasabidean, tiroz josia. Erori aurretik, balantzaka doa, zerraldo etzanda lurtean geratzen den arte. Bien bitartean, militarren epaitegi biburtzen da eszena.)

PAKO.—Eta, bukatzeko, “San Francisco el Grande”ko atentatuaren erantzule bakarra neu naizela aitortzen dut. Neu naiz ekintzaren asmatzaile eta egile, eta, nire oker batengatik gertatu zen, hain zuzen, hondamendi

Pido por ello perdón a nuestros pueblos. Pero no puedo terminar sin proclamar, por última vez, mi convencimiento de que la revolución proletaria será un hecho para todos los pueblos del territorio hoy cubierto u oprimido por la dictadura del Estado Español...

PRESIDENTE.—(*Grita.*) ¡Le retiro el uso de la palabra! ¡Cállese!

PACO.—(*Alza la voz y también grita*) ¡...la dictadura del Estado Español establecida por la violencia de un golpe que costó mucho más de los ocho muertos... que...!

(Los policías retiran a Paco que forcejea y grita. Ahora se oye una voz entre el público de la sala del teatro.)

VOZ ENTRE EL PÚBLICO.—¡Viva Espartaco! ¡Viva la revolución!

(Los policías dirigen sus armas al público. Se encienden las luces de la sala. Uno pregunta: ¿Quién ha sido? Pausa tensa.)

PRESIDENTE.—(*Se levanta.*) El acusado, Francisco Antich González, es condenado a muerte por este tribunal militar. La sentencia, una vez firme, será cumplida por garrote vil en los acuartelamientos de El Goloso, en Madrid, y en el plazo de cuarenta y ocho horas, de manera que...

(Su figura ha ido oscureciéndose. Los policías que retiraron a Paco lo sientan en el garrote y es ejecutado. Cuando el cuerpo queda tronchado e inmóvil, unos policías bajan al patio —recordemos que todo el teatro está encendido en estos momentos— con una manta. En el pasillo recogen en ella el cuerpo ensangrentado de Sergio y lo retiran hacia el vestíbulo mientras una estridente sirena martiriza los oídos de los espectadores, pues ha de saberse que a este espectáculo no ha venido uno a divertirse.)

Fuente:

SASTRE, Alfonso, *Análisis de un comando*, Hiru, Hondarribia, 1993.

guztia. Horregatik, barkamena eskatzen diet gure herriei. Baina, ezin naiz isildu nire azken deiadarra egin gabe: ziur nago langilegoaren iraultza benetan gertatuko dela gure herrietan, Espainiako Estatuaren diktadurapean zapalduak...

LEHENDAKARI.—(*Garrasika*) Galarazten dizut hitza! Ixo!

PAKO.—(*Hots bandian honek ere, garrasiz.*) ...Espainiako Estatuaren diktadurapean diot..., kolpe baten indarkeriaz, zortzi baino heriotza gehiago eman zituen indarkeria batez egotzi ziguten diktadurapean..., eta,...

(Poliziek kanpora daramate Pako, indarka eta garrasika. Orain, antzoki aretoko jende artetik, norbaiten abotsak:)

JENDE ARTEKO AHOTSA.—Gora Espartako! Gora iraultza!

(Poliziek jendeari begira jartzen dituzte euren armak. Aretoko argiak pizten dira. Norbaitek, galdezka: Nor izan da? Isilune larria.)

LEHENDAKARIA.—(*Jaiki egiten da.*) Epaitegi militar honek heriotzara kondenatzen du Francisco Antich Gonzalez auziperatua. Epaia, indarrean dagokeenetik berrogeita zortzi ordu barru, gilotinaz beteko da, Madrilen, El Coloso-ko koartel barruan; beraz,...

(Honen irudia iluntzen doa. Pako, eraman duten poliziek, orain gilotinan ezarri eta erail egiten dute. Gorputza zatitua eta ibilkaitz gelditzen denean, polizietan batzuk patiora jaisten dira –gogoan har antzoki guztia argitan dagoela une honetan-, manta batekin. Pasabidean Sergioren biltz odoldua biltzen dute mantan eta sarrera-aretora daramate, adar-bots lazgarri batek ikusleen belarriak lazki zauritzen dituen bitartean; ze, jakin behar baita ikuskari bonetara ez dela inor jolastera etorri.)